

# Urtebeteko kronika

Astigar Elkarteak 25. urteurrena bete du ■  
Kultur Taldeen Koordinadora ere lanean ari  
da etorkizunari begira

ASTIGARRAGAN hainbeste lan egin duen Astigar Elkarteak bere sorreratik 25 urte bete ditu. 1975. urtean Astigarragako hainbat gazte bildu ziren, euskal kultura bultzatuko zuen talde baten beharra ikusten baitzuten. Horrela, euskarazko eskolak, dantza, txistua eta beste hainbat jardueratako ikastaroak ematen hasi ziren. Garai hartan Astigarraga Donostiako auzo bat zen, eta gazte horiek Astigarragaren herri izaera aldarrikatu zuten. Astigar Elkarteko Antton Arkaren esanetan, «guginen nolabaiteko ordezkari sozialak, ez zegoelako beste elementurik horretan».

Astigar Elkartetik sortu dira egun lanean ari diren Astigarragako talde ugari. Talde horien artean dauzkagu Xagu-Xar, Astigar dantza taldea, AEK, Astigarra aldizkaria... Urtemuga ospatzeko hainbat

ekintza antolatu zituzten aurtengo ekainaren 25a eta 30a bitartean.

## Etxebizitzak eraikitzen

Astigar Elkartearen hasiera

hartatik gauza asko aldatu dira Astigarraga aldean, eta herria bera ere asko aldatzen ari da. Etxe eta eraikin ugari egin dituzte azken urteotan, eta horrek zein eragin ekarriko ote duen da herritar asko-

## Ramon Goikoetxea, txalapartari estimatua

Aurtengo apirilean zendu zen Ramon Goikoetxea Astigarragako txalapartari maltea. Txalapartari umila eta emankorra izan zen, bere anai Asentxlorekin batera txalaparta ikastaroak ematen zituen. Esan daitteke bi txalapartari hauek egindako lanari esker dauka txalapartak egun duen harrakasta.

Ramon Goikoetxeak egindako lan oparoa dela eta herrian omenaldi xumea egitea erabaki zuten, alde batetik aurtengo herriko aldizkariako (Astigarraga 2000ren 19 alea) kontrazalean bere irudia agertaraziz eta, bestetik, herriko jailetan (Santiotan) alpamen berezia egin zitzaien.